




BARREN
TOKIKOM



**Odola,
udan ere behar-beharrezkoa**



OSASUN GIDA

OPTIKAK

65/07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

183/12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

GINEKOLOGIA

82/15

**M^a JOSE RUIZ DE PORRES
DOKTOREA**

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrapzepzio

Toribio Etxebarria, 4-1.ezk.
Eibar
Tel.: 943 202 857

HORTZ KLINIKAK

171/12 LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamendua
- P.A.D.I.

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053

171/12 ELIZPE HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Umeen tratamendua
- P.A.D.I.
- Erreabilitazioak inplanteekin
- Erreabilitazioak zeramikekin

Elizburu, 3 behea - Soraluze
Tel.: 943 752 567
elizpe3@gmail.com

FISIOTERAPIA

271/12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953 - 669 565 745

177/12 fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitza

- Esku-terapia.
- E.P.I ® (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
 - + Traumatologia.
 - + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak (errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirrindulariaren biomekanika
(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191 - 667 953 628

AUDIOLOGIA PROTESIKOA

183/12

UZURI

- Entzumen protesia
- Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Akufenoen terapia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar - Tel: 943 740 359

www.hamaikea.eus

GURE BEGIZ IKUSTEKO

DEBABARRENA

Sintonizatu
34. kanalean

Hamaikea
telebista



NORA KORTABERRIA

“Duela bi urte utzi nuen atzean ikastola, eta bi urte geroago, gauza bera egin dut institutuarekin. Bi pauso; antzekoak, baina oso ezberdinak”

Bat eta bi. Duela bi urte utzi nuen atzean ikastola, eta bi urte geroago, gauza bera egin dut institutuarekin. Bi pauso; antzekoak, baina oso ezberdinak. Hala ere, biak oinkada sendoak. Zuri, Nerea –eta beste hainbati ere–, aspaldiko kontuak irudituko zaizkizu agian, baina niretzat behintzat, badira amaitu berri ditudan bi etapa, beste etapa zabalago baterantz zuzendu nauten bi etapa.

Hau guztia aipatzean, gogora datorkit joan zen barikuko ekitaldia: diploma banaketa. Batxilergoaren amaiera, egun berezietarako gordetako soineko luze eta alkandora dotoreak janzteko eguna, urduritasunak eragindako egonezina, ingurukoek emandako babesagatik esker ona... Ai, zenbat emozio! Eta, noski, nola ez, oraindik guztiz lurreratu gabe gaudenez, burutik kendu ezin dugun kontua. Maltara izan da gure ikasbidaia, eta Malta

izan da Herriko Antzokian bildu ginenon azalak belztu dituen eguzkia. Izan ere, kolore hori ez da marroi kolore hutsa, etapa honetako bizipenak biltzen dituen kolorea baizik. Egia esan, os-tiralean antzokian zen edozeini honen berri galdetuz gero, ziur naiz barre urduria nabarituko zitzaiola. Azken batean, han biltzen dira ia urtero Debabarreneko ehun pertsona, eta handik itzuli dira ehun kideko familiak (aita batekin, betiere). Huskeria bat dirudien arren, ezin ahaztu dezakegu, orain arte motxilan bildu dugunak ez digulako ihes egingo, nahiz eta gehiagorentzat tokia egingo den. Gogor zapaldu duenak, gogor zapaltzen du.

Eta tira, errealitatera itzuliz, zu ere Herriko Antzokian izan zinen. Argazkilari lanetan ari zinenez kamera izan zenuen lagun. Hiru urte atzerago beste batzuk egon zineten gure lekuan, eta ez al zitzaiuzun irudituko orduko ispiluaren aurrean zeundenik?



NEREA GURRUTXAGA



“Espero dut hurrengo urteak aprobeztatzea, atzean utzitakoa gogoratzuz, baina beti aurrera begiratuz! Aupa zuek!”

Bi eta bat. Hiru urte dira, jada, nik Batxilergoa bukatu nuela, eta beti izaten da gustukoa orduko oroitzapenak gogora ekartzea, Nora. Aurtengoan, bigarren urtez zuk esan bezala, kameraren objektiboan ikusi dut islatuta neure burua. Urte ahaztezinak dira Batxilergokoak.

Gure kasuan, ikastolatik irten ostean, institutuak jende berriarekin harremantzeko aukera ezin hobea eskaini zigun. Orduan hasi zen jaia, eta gure ekitaldirik garrantzitsuena bilakatu zen klasekoekin antolatutako afaria, izan ere, horrelakoetan ez genuen aspertzeko betarik izaten. Gogor ikasteaz gain, makina bat jai ospatu genituen: Gabonak, Euskararen eguna, San Joan Bosko... Zuek ere antzera ibili zarete esan dit xori txiki batek...

Horretaz gain, polita da aurrerantzean egin nahi duzuna aukeratzea, zure lehen erabaki garrantzitsua hartzea, bizitza nola

bait bideratzea. Nahiz eta erabakigarria edo hil ala bizikoa izan ez, momentu horretan norberaren kezka nagusia hauxe da: zer gustatzen zait? Zer egin nahi dut? Nire kasuan, nahiko argi izan nuen hasieratik Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nahi nuela, eta nork esango zidan karreraren azken urtea egitera nindoala, zuen diploma banaketa grabatzen ariko nintzela? Nostalgia da kasu hauetan nabarmentzen den sentipena; momentu hartan sentitzen genuen ilusioarena, batik bat.

Etorri diren urteak ere bikainak izan dira, eta unibertsitatea beste mundu bat da, baina dudarik gabe, trantsizio urte horiek beti gelditzen dira gogoan, buruko kaxoi preziatu batean gordeta bezala. Beraz, diploma banaketan izan zenuten giro onean jarraitzea espero dut, eta hurrengo urteak aprobeztatzea, atzean utzitakoa gogoratzuz, baina beti aurrera begiratuz! Aupa zuek!



nelak aukeratu ezina? Izan ere, bere herrian funtzionarioak "munduko pertsona inutilenak dira" eta inutilok "nozio praktikoei buruzko ezjakintasuna euren bertute gutien batura dela kontsideratzen dute".

"Etorkizunean holako lanetan berriz ipiniko dituzten ikasle argiak aspertzen ikasiz iluntzen dira"

Unibertsitatean lan egiten dugunok badakigu zerbait honetaz, baita gure narruan bertan ere, edo lehenbizi horixe. Paper tonak eta pdf megabitak be-tearazten dizkigute, eta ohartzen

'Idiota'

garenerako, gure ikasleen sormena lantzeko behar genuen patxada galdua dugu, garaturiko miopiarekiko alderantziz proportzionalki. Etorkizunean holako lanetan berriz ipiniko dituzten ikasle argiak aspertzen ikasiz iluntzen dira. Horrela ziurtatzen da lukurreroen partetik gizartearen idiotizazioa hitzaren jatorrizko zentzuan.

Izan ere, antzinako grekoentzat idiota auzi publikoetaz ahaztu eta soilik bere arazo pribatuez arduratzen zen hura zen. Pertsonak, Aristotelesentzat, animalia politikoa izan behar zuen; hau da, politikaz arduratzen ez zen bihankako idiota ezin zitekeen pertsonatzat hartu. Dostoyevskiren definizioa ekarri daiteke hau, bere zilborrari begira da goen batezbesteko europar idiota hauxe esaten imajinatzeko, gustuko periodikoa leitzen duen bitartean: "Greziar inutil hauek Europa desegingo dute azkenean!".

Fiodor Dostoyevskik Mishkin printzearen istorio morala kontatzen du *Idiota* nobelan. Eduki politiko handiko obra bat da, ezohiko printze honen bidez beharrezkoa ez den lana etengabe sortzen duen estatu burokratikoa kritikatzeko eta. Ofizinetan eseri eta estatuaren zerbitzuan jarri nahi duen jende uholdeaz dihardu, denek funtzionario izan nahi duten gizarteaz, eta zera galdetzen: nola da posible masa honetatik ganorazko nabigazio erakunde bat osatzeko behar diren mari-



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
bizirik



BARRENez ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Idotorbeko Jai Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie San Pedro jaietara gerturatu diren herritar guztiei, eta baita jaiak antolatzen lagundu dutenei ere. Eta aurrerantzean ere horrela jarraitzea espero dugu. Mila esker guztioi, jaietan izan dugun giro onagatik.

Errifaren zozketako irabazleak hauek izan dira: Jon Criado (janariz eta edariz beteriko karretila) eta Flori Oregi (asteburuko egonaldia nekazal etxe batean). Zorionak bioi.

Idotorbeko Jai Batzordea

OHARRA:

Datorren astean, uztailaren 17an, argitaratuko dugu oporren aurreko azken alea. Uztailako azken hamabost egunetan San Bartolome jaietako ale berezia prestatuko dugu, eta urtero bezala, abuztuaren 23an jasoko duzue ale hori.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitz argitaratuko.



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

15:30etik aurrera, jendea etorri ahala hasiko gara
bazkaria ematen Sigmako aparkalekuan

MENUA:

Entsaladilla errusiarra
Masailak saltsan
Izozkia
Kafea eta txupittoa (edariak: ura, sagardoa eta ardoa)

Trago luzeak: 3,50€

Zoro-zozketa

Spotykaraokea

15€

Elgoibarko
Izarrako
bazkideek

17€

Bazkide ez
direnek

Izenematea eta txartelak **Elgoibarko Izarran** eta **BARRENez**. Txartelak online erosteko aukera, www.elgoibarkoizarra.eus-en. Azken eguna: uztailak 27





'Eman odola, eman bizia'



Oporraldia gerturatzeko den bakoitzean gertatzen da: jendea lasaitu egiten da, "arduragabetu", eta emaille gutxiago izaten dira. Odola, baina, berdin-berdin behar izaten da, eta horregatik, alerta deia egin dute berriki Gipuzkoako Odol Emaileen elkartetik. Izan ere, uztailean odol erreserbak urte sasoi honetan izan ohi direnen azpitik zeuden -%80aren bueltan- eta ikusita abuztuan erdira jaisten direla odol emateak, arriskua ikusten zuten ospitaleetako odol beharrei ezin erantzunda ibiltzeko. Hala, odol emaille direnei oporretara joan aurretik odola ematera joateko eskatu zieten, eta oraindik ez direnei, animatzeko. Deialdi horri esker, erreserba handitzea lortu dute, eta pozik agertu dira arduradunak, baina hala ere, ohartarazi dute urtetik urtera odol emalleen kopurua behera egiten ari dela eta hori bere horretan badela kezkatzeko arrazoia [Gipuzkoan 31.621 odol emate izan ziren 2010ean, eta, iaz, 31.200]. Hala, Elgoibarko eta Mendaroko odol emalleen elkarteetatik dei egin diete herritarrei odola ematera gerturatzeko. Mendaron, gaur bertan dago horretarako aukera, 18:30etik 21:00ak bitartean, ikastolan.

- AINARA ARGOTIA -

Gipuzkoan, batezbeste, 700 odol poltsa behar izaten dira astean, 350 litro inguru, eta urte sasoi honetan biltegietako hozkailuak nabarmen hustu ohi dira [%55-60aren bueltan abuztuan]. Oporren eragina da, urtero, Aste Santutuan, Eguberrietan eta uda sasoiaren errepikatzen dena, Sabin Urzelai Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen zuzendariak ohartarazi duenez. Odol eskaera, berriz, etengabe ari da hazten, besteak beste, gizartea zahartzen doan heinean ebakuntzak ere ugartzen ari direlako eta medikuntzan egin diren aurrerapenekin organu transplanteak ere gero eta gehiago egiten direlako. Eta jakina, beharrezkoa den unean behar ditugun odol transfusio guztiak jasotzea eskubide ukazina den hein berean, eskubide horri eusteko erantzukizuna ere guztiona da. Horixe da Odol Emaileen elkarteetatik behin eta berriro gogorarazi behar izaten duten mezua: emateko odola, emateko bizia behar duenari. Izan ere, gaur gaurkoz ez dago gizakiaren odolaren ordezko kimikorik.

Galdakaon dago, berez, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Odol Bankua, eta hantxe baten dira jasotako odol poltsa guztiak, behar bezala sailkatuta eta tenperatura egokian. Hala ere, ospitale guztiek izaten dute euren biltegia edo *stock*-a. Gure kasuan, Mendaro ospitalera, astean bi-hirutan ekartzen dute odola Galdakaotik, programaturako ebakuntzetarako eta sor daitezkeen larrialdi kasuetarako. Ospitale txikia izanik, larrialdi kasu asko Donostiarra bideratzen dituzte, eta horrenbestez, odol premia ez da Donostian bestekoa gurean, baina hala ere, urtean 1.650-1.700 bat odol poltsa behar izaten dituzte Mendaron ere. "Jende asko ez da konturatzen zenbateko odol fata dagoen. Kirofanotik pasatu diren askok jakin



Jesus Mari Castañares, Elgoibarko Odol Emaileen elkartekoa.

ere ez dute egingo, beharbada, beste baten odola jaso behar izan dutenik aurrera egiteko eta hori zabaldu beharko genuke, jendeak kontzientzia hartu dezan”, nabarmendu du Jesus Mari Castañaresek [Teorian odola jaso behar duten denei eskatzen zaie baimena aurrez, eta zenbat jaso duten esaten zaie gero]. Elgoibarko Odol emaileen elkarteko arduraduna da Castañares joan deneko hamabost urtean, Begoña Izagirre eta Juan Carvallonekin batera. Kontzientzia falta dela dio Castañaresek, odol emateen inguruko datuei begirik kendu gabe. Liburua zabaldu du, eta kezkatuta hitz egin du. “2010an, 724 odol emate zenbatu genituen Elgoibarren, eta 609 iaz. Jaitsiera nabarmena da, eta horrek ematen digu pena, esan eta esan ari zaizkigulako gero eta odol gehiago behar dela ospitaleetan, eta guk eginahalak egin arren, ez dugulako lortzen jendea erakartzea. Etxean norbait odol premia larrian izan arte, jendea ez da ohartzen dagoen arazoaz”. Borondate falta baino gehiago, ezjakintasuna eta axolagabekeria ikusten ditu horren atzean berak. Izan ere, estatuan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian daude odol emaile gehien, baina hala ere, nabarmendu du hori ez dela lasaitzeko arrazoia.

EBAKUNTZETARAKO ODOL BEHARRAK

Carvallok esandakoak datuekin osatu ditu Urzelaik. Aipatu du ez dagoela zehazterik ebakuntza mota bakoitzerako zenbat odol behar izaten den, baina gaineratu du gaixoa ebakuntza-gelara sartzeko bi-hiru odol poltsa erreserbatzen direla beti, badaezpada. Batzuetan, zirujauaren trebetasunari esker, moldatzen dira

transfusio gutxiago eginda, baina konplikazioak ere nahi baino gehiagotan izaten dira, eta aurreikusitakoa baino odol gehiago erabili beharra ere bai. Badira, ere berean, arrazoi ezberdinetatik aldiro globulu gorriak, plasma edota plaketak behar izaten dituzten pertsonak ere. Datu errealak eman ditu Urzelaik. P.C.L. 29 urteko gazteak sei urtean 387 odol-unitate jaso ditu eta I.A.A. 15 urteko gazteak 54 unitate azkeneko sei hilabeteetan. Errepide istripuan zauritutako I.Z.E 34 urteko gizonari, berriz, bi egunean 23 odol poltsa sartu behar izan zizkioten, giltzurruna transplantatu zioten J.G.A. 39 urteko lagunari, 15 odol-poltsa, eta mokorreko protesia jarri dioten A.B.G 70 urteko lagunari, berriz, lau odol-poltsa. Zer pentsatua ematen duten datuak dira, herritarren kontzientziak astintzeko helburu garbiarekin ematen direnak.

SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

Herritarrak kontzientziatzeko eta batez ere belaunaldi berriengana gerturatzeko, sentsibilizazio kanpaina bereziak abiaratu dituzte azken urteotan, eta Elgoibarren, Meka ikastetxera ere gerturatu dira aurten odol emaileen elkartekoak. Estreinako aldia izan da, eta 25 lagun azaldu zitzaizkien odola ematera. Bestetik, Danobat eta Rodisa enpresetan ere urtean birritan egiten dituzte odol ateratzeak. Danobaten, aldi bakoitzeko, 38 bat lagunek eman dute odola, eta Rodisan, berriz, 23 batek.

Emateak gehitu, eta batez ere odol emaile fidelak lortzea dute helburu kanpaina guztiek, eguneroko behar bati erantzuteko ezinbestekoa delako eguneroko konpromisoa.

ODOLA EMATEKO BALDINTZAK

Odola emateko ezinbestekoa da 18 eta 65 urte bitartekoa izatea, 50 kilo baino gehiago pisatzea, osasuntsu egotea, eta gure odolaren bitartez besteei gaitzen bat kutsatzeko arriskuak izan daitezkeen jarduerarik egin ez izana. Gizonezkoek urtean lau aldiz eman dezakete gehienez odola, eta emakumezkoek urtean hirutan, eta odol emate batetik bestera, gutxienez bi hilabete pasatu behar dira. Odola eman aurretik, hori bai, sendagileak galdeketa bat egin ohi dio lehenengoz odola ematera doan horri eta tentsioa hartu eta anemiarik ez duela ziurtatu ondoren, erabakitzen du pertsona hori gai den hurrengo aldi batean odola emateko. 450 zentimetro kubiko odol ateratzen zaizkio emaileari, eta batez beste 7-10 minutu artean behar izaten dira horretarako. Prozesua bera azkarra eta oso segurua da, eta ez du minik ematen.

ODOLAREN PROZESUA

24 ordu irauten du emandako odolaren prestaketa prozesuak. Emandako odol unitate guztiak “ezin zorrotzago” aztertzen dituzte laborategian, gaixotasun kutsagarriak ez duela egiaztatzeko eta odol transfusioaren unean bateragarritasuna ziurtatzeko. Azterketa horiek egin ostean, odol unitate guztiak

temperatura jakin batean mantentzen dira hozkailuan, eta gero, prozesatu eta osagai desberdinak bereizten dira. Odol emanaldi bakoitzean hiru osagai lor daitezke: globulu gorriak edo hematiak, plasma eta plaketak, eta horretarako, odola iragazi egin behar izaten da. Odol emateen eragin-kortasuna handitzeko bereizten dira hiru osagai horiek, gaixoak behar duen hori bakarrik jaso dezan, eta era horretan odol emate bakarrarekin gaixo bati baino gehiagori lagundu ahal izateko. Berez, premia larriena globulu gorrietan eta plaketetan izaten da, iraungitze data handiena dutelako. Globulu gorrien poltsak gehienez 40 egunez mantendu daitezke hozkailuan, eta plaketak, bost egunez. Plasma, berriz, izoztu egin daiteke, eta horregatik, premia ez da horrenbestekoa.

Globulu gorriak, esate baterako, ebakuntza kirurgikoren baten edo istripuren batean odola galdu dutenei edo eta globulu gorrien kopurua gutxitzen duten gaixotasunen bat dutenei (minbizia, bizkarrezur muineko aplasia...) laguntzeko erabiltzen dira. Plaketak, berriz, bizkarrezur muinean behar beste plaketa sortzen ez dutenei laguntzeko izaten dira, eta plasma, berriz, koagulazio-arazo oso zehatzak dituzten gaixoei laguntzeko edo industrian plasma deribatuak sortzeko.



ODOL ATERATZEAK GAUR, MENDARON, 18:30ETIK 21:00AK BITARTEAN

Mendaroarrak 1984. urteko apirilean eman ahal izan zuten odola lehenengoz herrian bertan, eta Dolores Arakistain izan zen odola ematen lehena, Agustin Lazarobasterrek oroit duenez. Ordura arte, Elgoibarrera joan behar izaten zuten odola eman nahi zuten mendarorrek. Baina, Mendaro herria sortu eta urtebetera, lortu zuten ekimen hura herrira ekartzea, Gregorio Vivesen ekimenez. Gregoriok Sigman lan egin zuen, eta lankidea ez ezik laguna ere bazuen Ramon Maiztegi, Eustakio Goñi eta Fermin Ruizekin batera Elgoibarko Odol Emaileen elkarte sortu zuen gizona. Maiztegi animatuta egin zen odol emaile, eta hark lagunduta sortu zuten gero Mendaron

orain artekoei laguntzen, baina odol emaile izan gabe. "Umetan A motako hepatitis pasatakoak gara biok, eta urte askoan debekatuta izan dugu odola ematea", adierazi du Dorletak. "Hura poza eman genezakeela jakinarazi zigutenean!", gehitu du ondorengoa Arantxak. Kontrako kasua da Lurdesena. Urte askoan izan da odol emailea, baina gaur, ezin du odolik eman, 1980-82 urte bitartean Erresuma Batuan egon zirenek debekatuta dutelako. "Behi eroen gaitza zabaldu zen garaia zen, eta guri inork azterketarik egin ez badigu ere, debekatuta dugu gaur odola ematea. Pena!". Gaur, beste modu batean laguntzen du, baina. Prentsan irakurri zuen Gregorio Vives errelebo bila hasi zela, eta beste inork

agertu ezean, bera prest legokeela jakinarazi zion. Halaxe osatu zuen erreleborako taldea hirukote honek.

Odola ematearen garrantziaz mintzatu dira hirurak. "Odola bizia da, eta nik neuk egunero ikusten dut zenbaterainokoa den premia, odol poltsak bantzen ibiltzen naizelako egunero", azaldu du Dorletak. Arrasateko ospitaleko laborategian lan egiten du, odola aztertzen. "Ospitaleetan odol asko behar izaten da. Mokorrean protesi bat ipintzeko ebakuntza baterako, bi poltsa gordetzen dira berez, baina hiru-laupoltsa erabiltzen dira normalean, eta belauneko ebakuntzetan ere odol asko galtzen da. Jendea ez da konturatzen parean tokatu arte, baina premia han-



Lurdes Etxeberria, Arantxa Egaña eta Dorleta Lazarobaster, odola ematera dei eginez.

elkartera Gregorio Vives berak, haren emazte Trini Urbietak eta Agustin Lazarobaster eta Maria Jesus Arakistain senar-emazteek. Elkartera diruz lagunduko zuten herritar batzuk topatu zituzten [badaude oraindik ere batzuk] eta urtean behin odola emateko deialdia egiten hasi ziren. "Gogoratzen dut elkartzeko elkarte eta tabernaz taberna ere ibili ginela lehenengo aldi hartan herritarrek odola ematera animatzen", gogoratu du Agustin Lazarobasterrek. Gerora, odol ateratzeak sarriago egiten ere hasi ziren, eta behin, odol eskasi handia izan zen garai batean, odol ateratze berezi bat ere antolatu zuten abuztuan. Debabarrenako Odol Emaileen elkarterako delegatu ere izan zen Gregorio, gainera, hamar urtez, harik eta iazko martxoan, ezinak erretiroa hartzerantz behartu zuen arte. Baina erreleboa badago. Izan ere, Mendaroko elkartera sortu zuten haietako biren alaba Dorleta Lazarobasterrek eta urteetan odol emaile diren Arantxa Egañak eta Lurdes Etxeberriak hartu dute elkartearen ardura [jaz hartu zuten erreleboa].

Odol emaile "konbentzituak" direla aitortu dute. Bitxia da haien kasua, hala ere. Arantxa Egañak eta Dorleta Lazarobasterrek urteak egin dituzte odol ateratzeak egiten zituzten egunetan

eta berdina dio urteko zein sasoi izan! Baliteke udan ebakuntza gutxiago egitea, bai, baina larrialdiak egunero izaten dira", ohartarazi du Dorletak. Aitzakiarik ez dagoela gehitu dute Arantxak eta Lurdesek. Prozesua bera oso sinplea dela eta odola emateak berak ematen duen pozagatik bakarrik eta ahalegin txiki horrek beste baten bizia salba dezakeela jakite hutsagatik bakarrik merezi duela.

Gaur arratsalderako egin duten deialdia prestatzen harrapatu ditugu hirurak Kilimon elkartearekin. Diru-kontuak aztertu eta odola ematera doazeneztat mokadua prestatzeko behar dituztenak lozten. "Zer plan hoberik dago ba Mendaron ostiralderako [gaurko] odol eman, beste bati bizia eman eta gainera tortila pintxo goxoa janda etxeratu!", aurreratu du Arantxak. 18:30ean hasiko dira odol ateratzen ikastolan eta 21:00ak arte han izango dira erizainak. Batez beste, 50 bat lagunek ematen dute odol Mendaron, portzentajearen asko inguruko beste herri handiagoekin alderatuz gero, baina gutxitxo, odol jasotzeko dugun eskubide horri erantzutearen erantzukizuna herritar guztionak dela aintzat hartuz gero.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Erretxindiko zubiko barandaua apur bat luzatu beharko litzateke: "Erretxindiko zubiko baranda berritu dute duela gutxi eta oso ondo geratu da, baina apur bat luzatu edo itxi egin beharko litzatekeela uste dugu. Erretxinditik behe-raka, ezkerreko aldean, barandaua amaitzen den lekuan zulo bat dago, eta oso arriskutsua iruditzen zaigu. Umeren bat autopistara erortzeko arriskua dagoela uste dugu. Eskerrik asko".



Zuhaitzak luzeegi daude Ermuaran-bide kalean: "Ermuaranbide kaleko zuhaitzak asko hazi dira, eta orain, gainera, hostoz beteta daudenez, IMHko bidegurutzetik Maala aldera joaterakoan ez da ikusten beheko aldetik autorik datorren edo ez. Errepidera irten behar da autoarekin, eta horrek jakina, bere arriskua du. Zuhaitz horiek kimatu egin behar direla iruditzen zaigu".



Karkizao bidean dauden jarlekuak sasiz inguratuta daude: "Karkizaoko al-dapan hainbat jarleku daude, baina ezin dira erabili, sasiz inguratuta daudelako. Ingurune horretan jende asko ibiltzen da pasiatzen, eta jarleku horiek oso aproposak dira tarteka atsedena hartzeko, beraz, eskertuko genuke garbitzea. Noizean behin pasatzen dute desbrozadora handi bat, baina makina horrekin ezin da jarleku ingurua garbitu; lan hori eskuz egin behar da. Ez dakigu nori dagokion, baina mesedez, dagokionak hartu dezala kontuan gure eskaria".

Mintxetako gimnasioa beranduegi zabaltzen dute: "Mintxetako gimnasioa eta kirol instalazioak 9:00etan ere itxita egoten dira. Leku gehienetan goizean goiz zabaltzen dituzte kirol instalazioak, eta Elgoibarren ez. Munduko leku bakarra izango da ordutegi hori duena".

Txakurrak solte eramateko guneak eskatzeko sinadura bilketa kanpaina hasi dute Elgoibarren

Herriko berdegune eta parke publikoetan txakurrak solte ibiltzeko guneak egokitzeko beharra dagoela aldarrikatu dute Elgoibarko zenbait txakur-jabek, eta txakurrak aske eramateko guneen aldeko sinadura bilketa kanpaina hasi dute. Berdegune eta parke publikoetan txakurren aisialdirako gune aproposak egokitzeko eskatu dute, eta, baita animaliak babesteko Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 6/1993. legea betetzeko.

Inguruko herrietan dauden txakurrentzako guneak jarri dituzte adibidetzat, Ermukoa kasu. Horrelako guneak txakurrentzat onuragarriak direla diote: "Aske ibil daitezkeen guneak behar dituzte txakurrek, indarrak askatu eta lasaiago ibil daitezzen. Txakurrek izan ditzaketen portaera ezatseginak, -zaunkak, jokabide urduriak...- apaltzen dira horrela. Era horretan, txakur jabeen eta gainerako herritarren arteko elkarbizitza hobetzen da", azaldu du sinadura kanpaina bultzatzen diharduen Eneida Etxanizek. Bere ustez ez dute askorik eskatzen, txakurrentzako gune batek ez duelako azpiegitura handiegirik behar, ihes egin ez dezaten hesiz inguratutako itxitura bat eta bertara sartu eta irten



Txakurrentzako egokitutako gunea, Ermuan.

ahal izateko ate bat.

Elgoibartarrek honako leku hauetan sinatu dezakete agiria: Elgoibarko albaitaritza klinikan, +que+cotas dendan, fisio&mas zentroan eta Maren tabernan.

IMHko ikasleek China Skills 2015 Nazioarteko Topaketan parte hartu dute



Francisco Navarro Cadenas irakasleak eta mekatronika industrialeko Gorka Aginaga Osa eta Iker Txurruka Zabala ikasleek osatutako IMHko taldeak China Skills - 2015 National Vocational Students Skills Competition nazioarteko erakustaldian parte hartu du, Txinako Tianjin hiriburuan. Zortzigarren edizioa izan da aurtengoa, eta Txinako agintariek, Hezkuntza Ministerioko agintariek eta Industriako adi-

tuek parte hartu dute.

Erakusketa hau ZDVTI ikastetxean antolatzen dute (Tianjin Sino-German Vocational Technical College) China Skills erakundearekin elkarlanean. Egun ZDVTI ikastetxea zentru erreferentea da Txinan, eta hainbat eremutan ikasten duten 9.500 ikasle ditu. ZDVTI eta IMHk 2014an sinatu zuten elkarlanerako akordioa, eta horri esker ZDVTIko ikasleek fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioaren ikasketak egin eta Espainiako titulu homologatua lortzen dute. ZDVTI ikastetxeak gonbidatu du IMHko ordezkariak erakustaldian parte hartzera, Espainia ordezkatzuz, eta Txina, Thailandia, Alemania, Hego Korea, Laos, Singapur eta Tanzania herrialdeekin batera parte hartu du.

Erakusketa honetan Lanbide Heziketako ikasleek arlo industrialeko hainbat proba egin dituzte. IMHko ikasleek produkzioko lerro automatikoen doikuntzan eta instalazio proban parte hartu dute, sektore horretako nazioarteko enpresek eman dituzten baliabideak erabilia.

Idoia Artetxek ordezkatu du Begoña Mugertza San Lazaro egoitzan



Idoia Artetxek hartuko du aurrerantzean San Lazaro egoitz kudeatzeko ardura. Idoia Artetxe elgoibartarra da, 28 urte ditu eta Enpresen zuzendaritza eta kudeaketan lizentziatua da. Orain arte administrazio lanetan jardun du. Begoña Mugertzak 26 urte egin ditu San Lazaro egoitzan, eta joan zen astean hartu zuen erretiro partziala. Elgoibarko Udalak urte horietan egindako lana eskertu zion joan zen maiatzean, eta horren adierazle oroigarri bat eman zioten.

Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak San Lazaro udal egoitza Diputazioari eskualdatzeko hitzarmena sinatu zuten, eta hitzarmen horri esker, urte bukaera baino lehen kudeatuko du egoitza Foru Aldundiak. Elgoibarko San Lazaro egoitzak 35 langile inguru ditu, eta 48 egoiliar.

Uparitzaga kaleko Babes Ofizialeko etxeen zozketan izena emateko epea zabalik dago



Elgoibarko Udalak Babes Ofizialeko hamasei etxebizitza eraikiko ditu Uparitzaga kaleko 16. zenbakian, eta dagoeneko zabaldu dute zozketarako izena emateko epea. Interesatuak Etxebiden eman beharko dute izena, irailaren 30a baino lehen. Etxebizitzak 2016ko lehenengo hiru hilabeteetan zozkatuko dituzte.

Jubilatuen Eguneko bazkarirako izena emateko epea, zabalik


Abuztuaren 30ean ospatuko dute Elgoibarren Jubilatuen Eguna, eta urtero legez, jubilatuen bazkaria egingo dute egun horretan. Interesatuak Jubilatuen Biltokian eman beharko dute izena. Bazkariaren prezioa 7 eurokoa izango da.

Iruñeko entzierroak zuzenean, Kultur Etxean

Uztailaren 6an hasi ziren Iruñeko San Fermin jaiak, eta azken urteotan bezala, entzierroak zuzenean ikusteko aukera egongo da Elgoibarko Kultur Etxean.

Hondartza faltan, kalean

Uda iritsi zaigu, eta azken egunean nabarmen egin du gora tenperaturak. Asko dira hondartzara edo igerilekura joan direnak, baina horretarako aukerarik ez dutenek ere aurkitu dituzte irtenbideak. Martitzen goizean herritar batek Herriko Antzoki atzean bota zuen tobaila lurrera, eta hantxe etzan zen eguzkia hartzen. Debako hondartzaren faltan, kalean egin zuen bere hondartza propioa.



“Inork ez du gizatasunez justiziaren alde egindako lanaren damurik izango”

► **ANGEL UGARTEBURU** ‘ARNALDO ASKATU, POLITIKA ASKATU’ PLATAFORMAKOIA



2009ko urriaren 13an atxilotu zituen Espainiako Poliziak Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguez, Donostian, Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz. 2011ko irailean, ‘Bateragune auziko’ zigor epaia eman zuen Auzitegi Nazionalak, eta 2012ko maiatzean, epaia berretsi zuen Auzitegi Gorenak, kartzela urteak apur bat jai-tsita. Babes helegitea aurkeztu zuten bost presoek gero Konstituzionalean, baina Gorenaren zigor eskaera berretsi zuen auzitegi horrek. Preso jarraitzen dute beraz Bateraguneko bostek, eta aurki sei urte beteko dituzte kartzelan. “Ez genuen espero halako egokortasunez jokatuko zutenik gobernuek, baina ez gaitu harritu”, aitortu du Angel Ugarteburuk, ‘Arnaldo askatu, politika askatu’ plataformako kideak.

- AINARA ARGOITIA -

◆ ‘Arnaldo askatu, politika askatu’ plataformako kide zara zu zeu ia sorreratik. Zerk hurbildu zintuen zu taldera?

Kalean gelditu ninduen lagun batek plataforma sortu behar zutela esanez eta ez nuen zalantzarik egin. Iruditzen zait badirela gizatasunak berak eskatzen dituen jarrerak eta jokabideak; hau da, ez dagoela talde politiko jakin bateko partaide edo aldeko izan beharrik, ezta abertzale izan beharrik ere, zenbait unetan jarrera eta konpromisoren bat hartzeko. Gizatasuna eta justizia eskatzen zuen taldea zen, eta horrexegatik hurbildu nintzen Arnaldoren askatasuna eskatzen zuen plataformaren bileretara. Udaberrian pasatu ziren bost urte taldera batu nintzela. Arnaldoren semea, Hodei, ikasle ohia ere badut, eta taldera batu zirenetako beste batzuk ere bai, eta egoera gaizto honen aurrean haien ondoan egon beharra ere sentitu nuen.

◆ ‘Politika askatu’ gehitu zenioten ‘Arnaldo

Otegi' askatu leloari plataformaren beraren izenerako. Zergatik?

Ezinbestekoa ikusten genuen. Alde batego zein besteko presioak gaingintuz, politika libre egiteko aldarrria izan nahi zuen gureak. Egin genuen lehenengo deialdi hartara, lehen argazki handi hartara, herritar asko hurbildu ziren, ziurrenik deia egin genuenon asmoa zein zen ulertuta. Euskal Herriko egoera politikoa normalizaziora eramateko geure alea jarri nahi izan genuen, eta Arnaldoren eta gizarteko beste pertsona eta talde askoren asmoak eta helburua neurri batean lortu badira ere, ez dugu oraindik haren eta harekin batera espetxeratu zituztenen askatasuna lortu. Talde txiki hura zabaldu nahirik herritar guztiei dei egin genien, ideia berriak eta partaidetza zabalagoa lortzekotan. Gustura hartu genuen hurbildu zirenen partaidetza. Izan ere, plataformaren gogoia beti izan da talde politiko zehatz baten ordezkari baino gehiago gizatasuna eta justizia bilatzen duten herritarren ahotsa izatea.

♦ **Hala ere, bada oraindik ezker abertzaleari oso lerratuta ikusten zaituztenik, eta baita Arnaldo Otegiaren izena erabiltzean beste asko ahaztu dituzuela diotenik ere. Zer duzu esateko horren inguruan?**

Egin dizkigute halako kritikak, bai, baina guk garbi daukagu zer garen. Esan dizut lehen ere: plataforma hau ez da talde politiko zehatz baten ordezkaria, baizik eta justizia eta gizatasunez jokatzea eskatzen duten herritarrena. Gure asmoa beti izan da plataforma zabala izatea, baina gero kontua da lanerako prest nor dagoen. Ezker abertzalekoak gehiago izan badira, izan daitezke gehiago mugitu direlako, baina ez dei berezirik egin zaielako. Baina bai, eskuinekoek ezkerrekoen esku geunden susmoa izan dute, eta era berean, ezker abertzaleko batzuek kargu hartu izan digute esanez Arnaldo Otegi ez dela preso dagoen bakararra. Esan beharrik ez dago ondotoxo dakigula asko daudela barruan, baina Arnaldoren izena hartu dugu, politikaren nor-

“Merezi ez dugun estatu honen miseria salatzen jarraitzen du plataformak”

malizaziorako ikur bezala hartua izan delako, eta hori aitortzen ezker abertzalekoak eurek izan dira lehenengoak. Esan nahiko nuke, hala ere, alderdi politiko gehienek erakutsi diguten harrera ona izan dela. Joan Tarda (ERC), Xabier Arzalluz (EAJ), Ramon Labaien (EAJ), Rafa Larreina (EA), Gemma Zabaleta (PSE-EE), Jose Luis Uriz (PSN), Ainhoa Aznarez (PSN) eta beste asko ere batu zaizkigu ezker abertzalekoen gain. Gizatasunaren alde eta mendekuaren kontra dauden pertsonak dira gerturatu zaizkigunak.

Egin dezagun orain arteko zuen ibilieren errepaso bat orain.

Urteotan era askotako ekintzak antolatu ditugu: mahai-ingurua herri antzokian [Xabier Arzalluz, Mariano Ferrer, Jone Goirizelaia eta Martxelo Otamendi aritu ziren solasean, Hasier Etxeberriaren gidaritzapean], CUPeko David Fernandez solasaldi-hitzaldia [Martxelo Otamendik zuzenduta], bertso bazkaria ikastolako frontoian, Logroñoeko espetxera hainbat bisita, herriko beste eragile batzuekin hainbat film emanaldi [Gazta zati bat, Alex Txikonen dokumentalak, Ciutat Morta, Muguruzaren Zuloak], kontzertu akustiko bikain bat eta zenbait manifestaldi. Ekintza horietara jende asko eta askotarikoa batu da, eta guztiei eskerrak ematea dagokigu guri. Era berean, Jonan Fernandez Bakegintzako arduraduna eta Legebiltzarreko arlo horretako batzordekide Mari-bel Vaquero ere laguntzeko prest azaldu ziren, baina azkenean ez genuen gure eskaera Legebiltzarrerara eramanez, hemen azaltzeko luze diren arrazoiengatik. Gernikako Udalak, Gernika Gogoratuz elkar-teak, Kulturaren Etxeak eta Bakearen museoak banatu ohi dituzten Gernika sa-

rietan ere izan ginen 2013an, Pello Rubio eta Jesus Egigurenek egindako lanei esker. Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek Euskal Herriari egindako ekarpena nabarmendu zuen epaimahaiak.

♦ **Udazkenean beteko dira sei urte Batteredunekoak kartzelatu zituztela. Espero zenuten horren luze joko zuenik?**

Ez, ez genuen espero halako egoskortasunez jokatuko zutenik gobernuek, baina harritu ere ez gaitu egin. Urriaren hasieran askatuko dituzte sei urteko zigorra jaso zuten Sonia Jazinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta, barkazio txikienik ere gabe. Gero, 2016ko apirilaren 8an beteko omen du Arnaldok bere zigorraldia eta Rafa Diez Usabiagak luza-roago egon beharko du Santoñako espetxean, bere ama zaintzen libre utzi zuten denbora bete arte. Estatuaren kaxkarkeria nabarmen geldituko da betiko.

♦ **Zerrendatu ditugu orain arte egindakoak, baina aspaldian isilik dabil plataforma. Indarrez nola zaudete?**

Ahal duentxo egiten jarraitzen du gure plataforma honek. Merezi ez dugun estatu honen miseria salatzen jarraitzen dugu. Udazkenean, Arnaldok atxiloturik sei urte beteko dituela-eta, urrian, beste ekintza bat egitea aurreikusten dugu: Surtuko dira Berriak taldeko kantarien saio bat Herriko Antzokian.

♦ **Zerbait gehiago esan nahiko zenuke?**

Gure esker ona adierazi berriro ere gurekin bat egin duten guztiei, herritarrei zein kanpotarrei, eta baita alkateari, zinegotzi gehienei eta udal zerbitzuetakoei, emandako erraztasunengatik. Eskerrak eman nahi genizkieke, era berean, Jose Gurrutxagari hainbat batzar eta ekitalditan emandako laguntasunengatik eta erakutsitako prestutasunengatik eta baita Benantziori ere, Setien gotzainarekin egoteko egindako bitartekari lanengatik. Ezker abertzaleko Fernando Barrenari, Rufi Etxeberriari eta Aralarreko Patxi Zabaletari ere eskertu nahiko genieke agertutako babes eta baita auzian inplikaturakoen etxekoei ere. Inork ez du gizatasunez justiziaren alde egindako lanaren damurik izango.

1960

Aste honetako erretratu zaharrak Angeles Ortuostek ekarri ditu BARRENEKO erredakziora. 1960. urteko argazkiak dira. Garai hartan oraindik Antonio Arrillaga kalea egin gabe zegoen, eta argazkiko langile talde honek jardun zuen kalea egiten. San Bartolome parrokia ikusten da atzean, eta langileak San Inazio kaleko aldapan daude. **Ezkerretik eskuera:** Jose Ramon Ortuoste (†), Juan Apoita, ezezaguna, ezezaguna eta Francisco Fidalgo.



“2017an 100 urte betetzerako Haundi hirugarren mailan egotea nahi genuke”

▶ JESUS MARIA UNCILLA CD ELGOIBARKO PRESIDENTEA

Bukatu da futbol denboraldia, eta balorazioa egiteko unea iritsi da. Jesus Mari Uncilla CD Elgoibarko presidentea esandakoaren arabera, denboraldi positiboa izan da oro har, baina Haundi mailaz ez igotzearen arantza geratu zaio. 2017an ehun urte beteko ditu CD Elgoibarrek, eta ordurako Haundi hirugarren mailan egotea nahi dute klubeko arduradunek.

- AINHOA ANDONEGI -



◆ Bukatu da futbol denboraldia. Nolako balorazioa egin duzue?

Denboraldia ona izan da, baina Haundik ez du lortu mailaz igotzea, eta arantza hori geratu zaigu. Dena dela, seigarren egin du, eta postu ona da. Talde berria geneukan, jubeniletatik igotako jokalariek ziren gehienak, eta lan ona egin dute. Eguberriak arte igotzeko postuetan ibili ginen, eta hamaika jardunaldiren faltan lortu genuen mailari eustea. Beraz, kirol alorrari dagokionean denboraldi ona izan da. Futbol eskolan 70 lagunetik gora ditugu astero entrenatzen eta beste herrietako eskoletako taldeen kontra jokatzen, beraz, oinarria sendo daukagu. Alebinetan bi talde ditugu, infantil txiki mailako taldea mailaz igo da; lehen mailako infantilak Gipuzkoako txapeldunorde izan dira, kadeteek ere denboraldi ona egin dute, bai ligan eta kopan, jubenilek ere bai... oro har, pozik gaude maila guztietan lortutako emaitzekin.

◆ Eta balorazio ekonomikoa?

Kasu honetan arazo gehiago izaten ditugu, normalean gastuak sarrerak baino handiagoak izaten direlako. Publizitatean jaitziera handia igarri dugu krisiaren eraginez, eta diru-sarrera berriak aurkitzea zaila egiten zaigu.

◆ Denboraldi amaierarako paella jana antolatzen zenuten. Nola irten zen jaiak?

Oso ondo, aurreikuspen guztiak gainditu genituen. Giro oso onean joan zen eguna, eta Maalan egitea ideia oso ona izan zen. Futbola herrira gerturatzeko hainbat ekimen egin ditugu, futbola ez dadin Mintxetan ezkatatuta egon.

◆ Taldeak osatzeko zailtasunak izaten dituzue?

Taldeak osatzeko jendea izaten dugu normalean, bereziki, mutiletan. Neska gehienak, baina, eskubaloira joaten dira, eta ez dugu lortzen nesken taldea osatzea. Futbol eskolan laupabost neska ditugu, baina adin betetik aurrera ezin dute mutilekin jokatu, eta futboleko segitzeko aukerarik gabe geratzen dira. Udaleko Berdintasun Sailarekin ari gara lanean futbola nesken artean zabaltzeko. Gustatuko litzaziguke alebinetatik sortzea nesken taldea. Entrenatzaileak topatzeko ere zailtasunak izaten ditugu, maila batetik aurrera tituludun entrenatzailek behar izaten direlako.

◆ Haundirako kanpoko jokalaririk asko ekartzea leporatu izan zaio CD Elgoibarrri. Nola dago taldea gaur egun?

Elgoibarko bost jokalaririk ditugu, eta nahiko genuke horiek segitzea. Regionala mailaz igotzea ere ondo legoke, Haundirako harrobia sendotzeko. Orain bi kategoriako aldea dute Haundik eta erregionalak, eta egokiena bata bestearen azpian egotea litzateke.

◆ Aurrera begira, zein dira helburuak?

Nesken futbola sustatzea nahi dugu, eta aurten ere egin ditugu horretarako hainbat saiakera. Emakumeen Egunaren harira emakumezkoen arteko partidak antolatu genituen, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Horrez gain, Haundi mailaz igotzea izango da gure helburu nagusia. 2017an ehun urte beteko ditu klubak, eta ordurako Haundi hirugarren mailan egotea nahiko genuke. Gipuzkoako klubik zaharrenetakoa da gurea; pentsa, Gipuzkoako Federazioak berak ere urtebete beranduago egingo ditu ehun urte, eta Eibarrek ere 75 bat urte ditu.

Imanol Garaizabalek hirugarren egin du Aran Bailarako 77 orduko orientazio raidean



Beñat D'Hoiazabal, Imanol Garaizabal, Maitane Garmendia, Haitz Larrinaga.

Imanol Garaizabalek Raid de Aran proban hartu zuen parte joan zen astean, beste hiru kiderekin laukotea osatuta, eta hirugarren egin zuen. 77 orduko orientazio proba da, Europako Raid zirkuitokoa.

Ostegunean hasi zen proba, 9:00etan, eta domekan zeukaten proba amaitzeko ordu muga, 14:00etan. 77 ordu guztira, atsedetik gabe. Proba erdian lau orduko etena egin behar zuten derrigorrez, baina bestela, talde bakoitzak erabaki behar zuen noiz eta nola deskantsatu. "Lehenengo egunean eta hirugarrenean hamarna minutu egin genituen lo, eta nahikoa izan zen. Hamar minutuk askorako ematen dute", esan du Imanolek. Horrelako proba bat egiteko ur asko edatea eta ondo jatea ezinbestekoa dela aipatu du, eta horretan bete-betean asmatu dute: "Taldeko lau kideek oso ondo eutsi genion, ez zen inor zorabiatu eta indartsu egon ginen amaierara arte".

50 bat taldek hartu zuten parte guztira, eta hasierako asmoa proba amaitzea bazen ere, orduak aurrera joan ahala podiumean sartzeko aukera zutela konturatu ziren Imanol eta bere taldekideak: "Horrek sekulako indarra eman zigun", adierazi du. Estrategian asmatu zuten. Zona bakoitzean derrigorrez lortu beharreko balizak zeuden, eta horrez gain, puntu gehiago ematen zuten bereziak: "Derrigorrezkoen bila joatea erabaki genuen, eta amaieran, denbora bageneukan, hartuko genituela bereziak". Horrek aukera eman zien probak zituen hainbat mozketara puntutara garaiz iristeko, eta beste talde asko ez ziren mozketara horietara iritsi. "Lehen mozketan hiru talde bakarrik pasatu ginen denbora barruan, eta beraz, bagenekien podiumean geundela". 75 ordutan bukatu zuten proba.

Proba gogorra, baina polita izan dela nabarmendu du Imanolek. 15.000 metroko desnibel positiboa gainditu dute, 250 kilometro egin dituzte bizikletan, eta 140 kilometro oinez. Horrez gain, kayak, erreka jaitsiera, eskalada edota padel-surf proba bereziak ere pasatu dituzte.

Debabarreneko raida, irailaren 26an Elgoibarren

Morkaiko mendizale elkarteak Debabarreneko lehen raida antolatu du irailaren 26rako. Mendia eta orientazioa uztartzen dituen proba izango da eta Euskal Herriko raid ligaren barruan jokatuko da.

Elgoibarren prestatu dute ibilbidea. 10:00etan hasiko da proba Kalegoen plazan, eta 17:00etan amaituko da leku berean. Partaideek bikoteka parte hartu beharko dute, eta bikoteak emakumezkoenak, gizonezkoenak edo mistoak izan daitezke. Bikote bakoitzak zazpi ordu izango ditu gehienez proba amaitzeko. Antolakuntzak hainbat kontrol leku jarriko ditu ibilbidean zehar, eta bikoteek kontrolgune horietatik pasatu beharko dute, puntuak eskuratzeko. Ahalik eta puntu gehien lortzea izango da helburua, zazpi ordu horien barruan.

Probak bost atal izango ditu, eta partaideek hainbat kirol-proba egin beharko dituzte. Tarte batzuetan mendiko bizikletaz eta beste batzutan oinez bete beharko da proba. Erreka jaitsiera bat ere egongo da, eta beste abilezi eta orientazio proba berezi batzuk ere egin beharko dituzte partehartzaileek.

Morkaikoko kideek esan dutenez, ibilbide "oso polita" prestatu dute, bakoitzak bere neurrira moldatu ahal izango duena. Hau da, gogor lehiatu nahi duenak izango du horretarako aukera, baina lasaigo joan nahi duenak ere, ibilbidea laburtzeko aukera izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://debabarrenaraid.wordpress.com>

Dinamo Kalimotxok irabazi du Ermuko 3x3 saskibalo txapelketa



Ermua 3x3 Saskibalo txapelketa jokatu zuten zapatuan Ermuko Cardenal Orbe plazan, eta Elgoibarko Dinamo Kalimotxo taldeak irabazi zuen. Hamar taldek hartu zuten parte, eta horien artean Elgoibarko bi taldek: Dinamo Kalimotxo eta Metalinaikos. Bi multzotan banatuta jokatu zuten hamar taldeek, eta elkarren aurka jokatu ostean, multzo bakoitzeko bi talde onenek jokatu zituzten finalerdiak. Hala, bi talde iritsi ziren finalera, Bilboko Garaitu eta Elgoibarko Dinamo Kalimotxo. Richard Aranzabal, Carlos J. Lahoz, Manex Bereziartua eta Fernando Bautistak osatutako taldeak irabazi zuen finala.

Bukatu dira 40-15 elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketak



40-15 tenis elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketen finalak joan zen zapatuan jokatu zituzten, Mintxetan. Padel nesketan Ane Iturbe eta Nerea Salas izan ziren txapelkunak, lone Balmaseda eta Alicia Iglesiasen kontra 6-4 eta 6-1 irabazi ostean. Gizonezkoen padelean, aldiz, Jon Etxaidek eta Alberto Gonzalezek 6-4 eta 7-6 irabazi zuten Aritz Martija eta Asier Oiarzabalen kontra. Eta, azkenik, Ruben Lizarralde eta Sergio Urrizak jokatu zuten tenis txapelketako finala. Lizarralde hiru set behar izan zituen txapelketa irabazteko: 6-4 / 5-7 / 6-3 izan zen azken emaitza.

Julen Umeretz nagusitu zen Javier Ezenarro oroitzarrean



Julen Umeretz Ulma taldeko txirrindulariak irabazi zuen joan zen zapatuan Mendaron jokatu zen Javier Ezenarro zenaren omenezko txirrindulari lasterketa. Xabier Murgiondo taldekidearen eskutik helduta sartu zen helmugara Umeretz, eta Atracciones Sanz taldeko Unai Orbea txirrindulari azkoitiarra sailkatu zen hirugarren postuan, 17 segundora. Guztira, 81 txirrindulari irten ziren, eta 52k lortu zuten proba amaitzea. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du urtero lasterketa hau, eta guztira, 80 bat kilometroko ibilbidea egin behar izaten dute txirrindulariek, bi aldiz Osintxuraino joan eta beste birritan Kalbarrioko gaina ingoz.

Azkaraten egingo diote ongietorria gaur, Ehunmiliak Ultratrail probari

Gaur hasi eta domekara bitartean jokatuko da aurtengo Ehunmiliak ultratrail mendi proba. Beasainen izango da irteera 18:00etan, eta gauerdi inguruan iritsiko dira Azkarate gainera. Azken urteotan bezala, Elgoibarko mendizale talde batek korrikalariei ongietorria egiteko ekitaldia antolatu du. 22:00etatik aurrera batuko dira Elgoibarko mendizaleak Azkarate inguruan. Ultratrail proba honek 168 kilometroko ibilbidea dauka, eta partaideek 11.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Elgoibartarren artean, Joseba Elustondok eta Iban Fernandezek eman dute izena.

LANA.....**Eskaerak**

Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egun osoz edo orduka. Lehen soro-rospen arretan eta sukaldean esperientziaduna. ☎ 631 361 762

Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientzia dauka adinekoak zaintzen. ☎ 626 580 592

Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Portalak garbitzen egingo luke lan. Gidabaimena dauka. ☎ 689 571 882

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ 631 832 767

Neska eskaintzen portalak garbitzeko. ☎ 617 571 210

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 631 832 767

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Psikologia ezagutza dauka. Garbiketa lanak ere egiten ditut etxeetan, tabernetan, elkarte gastronomikoe-tan, portaletan. Lanaldi osoan, orduka... ☎ 631 098 995

Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Edozein lan egiteko prest. ☎ 602 107 411

Gizona eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 632 931 627

Gizona eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 632 234 087

Mutila eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 666 836 789

Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ 619 041 821 / 943 744 033

Emakumea eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ 673 955 298

Neska eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ 632 510 102

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna moduan ere bai. ☎ 632 882 532

42 urteko emakumea naiz eta lan egin nahi nuke. Nagusiak zaintzen lan egin izan dut eta erreferentzia onak dauzkat Umeekin ere oso ondo moldatzen naiz. Interna moduan lan egiteko ere prest. ☎ 642 636 525

Emakume arduratsua eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo taberna eta etxeetan garbiketa lanak egiteko. ☎ 620 258 708

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditu. ☎ 603 743 240

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Abuztuan ere lan egiteko prest. ☎ 638 338 816

Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 633 236 528

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 632 454 417

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 631 705 406

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ 667 897 002

Eskaintzak

Jaietan Elgoibarko Taberna batean lan egiteko zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. Bidali CV: *kamarero-gjaiak@outlook.es* helbidera. Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. CV bidali Gautxo tabernara.

ETXEBIZITZAK.....

Pisua edo buhardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 631 098 995

Etxea hartuko nuke alokairuan, Mendaron. ☎ 602 107 411

BESTELAKOAK.....

Martxan dagoen liburudendaren ardurua hartzeko prest dagoen pertsona baten bila gabilza. ☎ 696 394 717 / 677 744 273

Lerun industrigunean, Netto BM hipermerkatuan dagoen Rosa liburudendan loteria saltzeko lizentzia eskualdatzen da, gaixotasunagatik. Harremanetarako: *rosadaquinta22@hotmail.com* ☎ 680 321 479

Sofa salgai. Ia berria. Tela iragazgaitza. ☎ 628 115 677

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

NORFO SL

Etxaldeen komunitate bateko presidentea naiz. Ondoko orubean eraikin bat erakitzzen hasi dira, eta arrakalak sortu dira gure eraikinean, bereziki lehenengo solairuetan. Zer egin beharko genukeen jakin nahiko nuke.

Obra hori egiten ari direnei eta enpresa eraikitzaileari berari ere jakinarazi beharko diezu zer gertatu den, modu frogagarrian eta ahal den azkarren. Ziurrenik, zuk jakinarazi eta berehala hartuko dituzte neurriak. Normalean, obra bat hasi aurretik enpresa eraikitzaileak akta bat egin ohi du, eta hor, obra hasi aurretik ondoko eraikinak nola dauden ere jaso ohi du, ikusteko gero obra horrek kalterik eragin dien edo ez.

Akta hori egin ez badu, epaitegietara jo beharko zenuke, baina hori egin aurretik komenigarria da aholkulari profesional batekin egotea, behar bezala informa zaitzan.

AHOLKUA: Etxejabeen batzarrak aztertu eta onartu beharko du enpresa eraikitzaile hori epailearen aurrera eramatea eta prozesu judizial hori behar bezain zabala izan beharko da, etxejabe guztiak asebetetzeko, prozesu judizial horretan parte hartuko duten profesionalak aukeratzeko edo presidenteari eskumena emateko profesional horiek berak aukeratu ditzan. Prozesu horretan, behar balitz, presidenteak ordezkatzeko lituzke beti etxejabeak.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores
Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas
Instituto Vasco de Administración de Empresas
Luzuriaga, 10



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Ongi-etorri **Sara!** Sara Arrizabalaga Rodriguez ekainaren 26an jaio zen. Gurasoak: Joseba eta Klara.



Zorionak **Inge!** Osatu duzu eguzkiaren inguruan zazpigarren-buelta! Muxu handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Saioa,** zure bosgarren urtebetetze egunean, aita, ama eta Iratxeren partez!



Zorionak, **Garazi,** atzo 7 urte bete zenuelako eta zorionak, amama **Paula,** gaur zure eguna delako. Muxu bana, familiakoen partez.



Zorionak, **Unai** eta **Uxue,** zuen hirugarren urtebetetzean! Primeran ospatuko dugu astelehenean! Muxu bat familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak honako lan postua
betetzeko deialdia egin du:

Doimak

- **PRODUKZIO-ARDURADUNA BEHAR DA, EKOIZPENAREN ETA AZPIKONTRATEN GAINEKO ARDURA IZANGO DU, ETA BI ALOR HORIETAN ESKARMENTUDUNA IZATEA BALORATUKO DA.**

Interesdunek bidali zuen curriculumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora edo deitu 617 432 401 telefono zenbakira (Tomas)

10 BARIXAKUA

22:00 Ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten.

15 EGUAZTENA

13:00 Kirol Argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Interesatuak Olai-zaga kiroldegian aurkeztu beharko dituzte erretratuak. Sari banaketa abuztiaren 22an izango da, eta gero ikusgai jarriko dituzte argazkiak, Kultur Etxean.

18 ZAPATUA

11:00 Azkaratera igoera. Maalako jaien barruan egingo dute. Maalako errotondan hasiko da proba.

18:00 Giza proba txapelketako finala, Sigmako probalekuan. Itziarko, Debako, Mendaroko eta Berrobiko taldeek hartuko dute parte.

Nabarmendua

Trio Basaur taldearen kontzertua, Soraluzen

Uztailak 11, 23:00etan, Batzokian

Duo Plaentxi izenarekin 25 urtez taula gaineetan aritu eta gero, Santi Sarasketa eibartarra batu da orain gutxi taldera, eta, kantatzeko zaletasunari eutsi asmoz, Trio Basaur osatu dute Jose Luis Badiolak eta Jesus Urizarrek. Talde berriak, bihar eskainiko du estreinako kontzertua, 23:00etan, Soraluzeko Batzokian.



Gaztelekua

Hurrengo asteazkenean
beldur gaua,
20:00etatik aurrera.
Eman izena astearterako!



Ludoteka

Uztailaren 15ean
Mintxetako igerilekura egingo
den irteerarako
izenematea zabalik:
Azken eguna: uztailaren 14a.

Zinea (Kalegoen plazan)



El cuarteto

10 barixakua, 22:30

Zuz.: Dustin Hoffman. **Erre-
suma Batua, 2012. 95 min.**
Komedia. Aktoreak: Mag-
gie Smith, Tom Courtenay, Billy Connolly (Wilf
Bond), Pauline Collins.

Beecham etxeak musikari erretiratuak hartzen ditu. Zurrumurru bat zabaldu da bertako kideen artean, eta badirudi musikari famatu bat iritsiko dela laster. Reginald, Wilfred eta Cecilyk uste dute txutxumutxu bat besterik ez dela, baina bat-batean txundituta geratuko dira: euren laukoteko kide Jena Horton iritsiko da etxera.



Turbo

11 zapatua, 22:30

Zuz.: David Soren. **AEB,
2013. 96 min. Animazioa,
komedia.**

Superabiadura bostera eskuratuko du Turbo barraskiloak, baina kaleko beste barraskilo batzuen laguntzaz konturatuko da bizitzan arrakasta izateko abiadura ez dela nahikoa. Hortaz, bere ametsa lortu aurretik, bere lagunei lagunduko die beraien ametsak betetzen, eta gero ekingo dio bereari, Indianapoliseko 500 miliako lasterketa irabazteari, hain zuzen ere.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K

09:00 - 22:00

10 Barixakua ETXEBERRIA
11 Zapatua ORUESAGASTI
Goizez: Yudego
12 Domeka ORUESAGASTI
13 Astelehena BARRENETXEA
14 Martitzena IBAÑEZ
15 Eguaztena GARITAONANDIA
16 Eguena ETXEBERRIA

17 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 24:00
Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Ekainean hildakoak

Manuel Augusto De Oliveira Rodrigues

49 urte, ekainak 2

Garbiñe Iriondo Aristondo

47 urte, ekainak 13

Jose Elustondo Etxaniz

81 urte, ekainak 15

Antonio Ansola Gurrutxaga

90 urte, ekainak 17

Jose Astigarraga Egaña

88 urte, ekainak 23

Javier Cerezo Julian

52 urte, ekainak 26

Jose Emilio Martinez Criado

60 urte, ekainak 27

Ekainean jaiotakoak

Jon Armendia Leiaristi

2015-06-09

Adam Abdallahi Mohamed

2015-06-04

Lea Olasolo Gabilondo

2015-06-20

Eneko Carrascosa Iriondo

2015-06-25

Sara Arrizabalaga Rodriguez

2015-06-26

Yassin Kadi

2015-06-26



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Infinitua. Argirako bidea. Txikitasuna. Sakontasuna. Iris-a. Irudi fraktala. Lagunek argazki honi buruz esandakoak dira. Nik, baina, eskuak ikusten ditut argazki honetan. Zerua ukitu nahi duten eskuak. Asteon Grezian ikusi ditut eskuak. Troika heleniarrei eragiten ari zaien krisia irudikatzeko erabili ditu hedabide batek eskuok: Hego hemisferioko herrialderik txiroenetan ikusi ohi ditugun eskuak ziren, jende artean, etsi-etsian janari-poltsa bati heldu nahian. Ziega beltzetik zeru askea ukitu nahi duten eskuak ere ikusten ditut. Bisita ostean, senideak leihotatik agurtzen dituzten presoek eskuak. Behinola Parisera egindako bidaiak etorri zaizkit gogora. Orduko laguna etxean da zorionez. Mezu bat bidali dit: Moulins espetxeko baldintzak gogortu dituztela, eta egoera salatzeko, gutun-kan-

paina jarri dutela martxan. Logroñon, horma artean den elgoi-bartarrak 57 urte egin dituen egunean bidali dit mezua. 34 urteren ostean, ikurrina Iruñeko balkoira itzuli den egunean. Udaletxe plazan esku asko ikusi ditut goratuta aurten ere txupinazoan. Emakumeak lizunkeriaz ukitu nahi dituzten eskuak alboratuta, ikurriñari gorazarre egiten dioten eskuak. Biharamunean iritsi da Gobernuaren salaketa. Eta biharamunagoan atxiloketak Ipar Euskal Herrira. Orduan ohartu naiz, lagunak aipatu bezala, irudi fraktala osatzen dutela zuhaitzok. Behin eta berriz errepikatzen den espiral amaigabea bizi gara. Gure esku dagoela esaten badigute ere, euren esku egongo dela beti. Eta guk etengabe eskuak luzatuta ere, eurek, goitik, handitasunetik, beti txikituko gaituztela. Ohartuko dira noizbait, erroitik erauzita ere, beti ernatzen direla zuhaitz-kimu berriak; uda oro, gorri ederrez hazten direla gereziak.

'Eskuak ikusten ditut argazki honetan. Zerua ukitu nahi duten eskuak'



Eskertzak eta urteurrenak



Bienvenida Gonzalez Jara

2015eko ekainaren 29an hil zen, 87 urte zituela.

***Zu maitatzia oso erreza zan;
beti egongo zara gure bihotzian.***

Etxekoak



Manoli Lopez Rodriguez

***Borrokalaria nekaezina izan zinen azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.***

Maite zaitugu.

Etxekoak

2015eko uztailaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Antonio Fidalgo Losada

Estación taberna

2015eko uztailaren 8an hil zen, 85 urte zituela.
Hileta elizkizuna barixakuan, uztailak 10ean, izango da, 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.eus
info@biena.eus

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

San Roke 10-A behea B
☎ 647 463 436

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Iparelek elektrizitatea

Killimon hiribidea, 1, 2. lokala
Mendaro
☎ 943 530 356/659 934 964
iparelek@gmail.com



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Leihoak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2
2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 743 490
Faxa: 943 747 312
www.lodoso.es

